



Doinu barrokoetz gozatzen. - Era paregabean eman zioten ostiralean hasiera Ivan Moreno gitarra jole eta Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoek Danok Kide elkarteak antolatzen dituen XI. Musika Topaketei. Hirukoteak musika barrokoz bete zuen Ama Brigitarren komentua bertara hurbildu ziren entzuleen gozamenerako. Besteak beste, Monteverdi, Strozzi edo J. S. Bachen lanak eskaini zituzten. Amaia Larrayoz eta Marta Santolaya sopranoen ahotsetan barroko garaiko trufa eta graziak entzun ziren. Era berean, Ivan Morenok tiorba eta gitarra barrokoarekin duen trebezia erakutsi zuen emanaldian zehar. Hurrengo hilabetetan Topaketen barruan beste emanaldiez gozatzeko aukera izango da. Elkarteko kideek aurreratu digutenez, abenduaren 4an Ana Belen Garcia organo jolea eta Haizea Muñoz sopranoa izango dira Topaketetan. Baina Danok Kideek hainbat ekimen sustatzen ditu eta hurrengo, Donostiako Teatro Estudio taldeak bere 50. urteurreneko ekintzen barruan, eskainiko dituen bi antzerki izango dira. Lehen saioa ostiralean da eta Donostiako taldeak 'Ensayos a siete' lana eskainiko du Manuel Lekuona kultur etxean.

2 OSASUNA

Gripearen txertoa jartzeko azken asteak

Azaroarekin batera gripearen txertoaren kanpaina amaituko da. Urria hasieratik, hainbat izan dira Osasun Zentrora hurbildu eta txertoa jarri duten herritarrak. Baina bada hitzordua atzeratzen doanik ere. Osasun Zentroko kideek deialdi berezia egiten diete arrisku taldeetan dauden herriterrei, batez ere, gaixotasun kronikoren bat duten pertsonen eta haurdunei.

3 UDALA

Ordenantza berriak onartu ziren Udalbatzarrean

Ostiralean, ezohiko Udalbatzarra burutu zen. Honetan 2016. urteko ordenantzen txostena landu eta tasa berriak onartu zituen batzarra. Era honetara, hainbat tasek %1,3ko igoera jasango dute. Taxien tasa, esate baterako, izoztuko da eta kiroldegiko kuotak jaitsiera txiki bat izango du.



6 KIROLA

Intza KEko seniorrek maila igoera jokatzeko dute

Ezker hormako II. mailako txapelketako lehen fasea asteburu honetan jokatu da eta jardunaldi interesgarria izan da benetan. Azken partida honetan, Intza KE eta Eskoriatzak igoera faserako txartela jokoan zuten. Eskoriatzako atzelariaren lesioa medio, lasarteoriatarrek lan egin behar izan zuten garaipena lortzeko.

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

Krisi garaian,
guk ere esfortzua egin nahi izan dugu,
gure prezioetan!

Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETU

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria



Foto depilazioa argi pultsatzarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua

Solomoa baratxuritan


Etxeko txorizoa

Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra

Basurde burua

Baserri pateia



BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

GRIPEA

Gripearen txertoa hilaren amaiera arte

Arrisku taldeetako jendeari txertoa jartzeko gonbita egiten diete Osasun Zentroko kideek

Urtero legez, gripearen kanpaina martxan da. Urrian hasi eta bi hilabetez, arrisku taldeetako kideek txertoa Osasun Zentroetan jartzeko aukera dute. Lasarte-Oriako Osasun Zentroako arduradunek haurdunei eta gaizotasun kronikoak dituzten herritarrei dei berezia egiten diete. Azaroaren 30ean amaituko da aurtengo kanpaina.

Urriaren 5an hasi zen gripearen aurkako aurtengo kanpaina eta asko izan ziren lehenengo egunetan Lasarte-Oriako Osasun zentrori hurbildu ziren herritarrak. Egun kopurua jaisten doa, baina egunero herritarren batek txertoa ezartzen du. Izan ere, Osasun zentroko kideek gogoratzten duten modura, azaroaren 30era arte dago kanpaina indarrean.

Pertsona helduei dagokien, gripearen aurkako txertaketa prebentzio komunitarioko neurri nagusietako bat da Euskadin.

Osakidetza 65 urtetik gorakoentzat, gaixotasun kronikoren bat dutenentzat, diabetikoentzat, haurdunentzat eta osasun-langileentzat gomendatzen du txertoa. Izan ere, gripea gaixotasun infektiosoa baita eta ondorio

larriak edo kasu batzuetan, heriotza eragin baitezake.

Angel Gomez Lasarte-Oriako Osasun zentroko erizainak batez ere, haurdunei eta gaixotasun kronikoak dituztenei egiten die deia. “Izan ere, 65 urtetik gorako pertsonak eskutitza jasotzen dute etxean eta besteei, gehiago kostatzen zaie, lanagatik edo dena delakoagatik”.

Ordutegia

Arestian aipatu legez, azaro amaiera arte dago txertoa jartzeko, beraz normalean, bi hilabete epea dute arrisku taldeetako kide eta interesatuek.

Angelek azaldu moduan, Lasarte-Orian hitzordu sistematikoki lan egiten da eta, lehen bi asteetan 5 ordu eta erdiko txandak egin zirela aipatu digu. “Herritar asko dira lehen egunetan txertoa



Asko izan dira dagoeneko gripearen txertoa jarri duten herritarrak. Hilabete bukaera arte dute oraindik egin ez dutenak.

jartzen dutena. Gero lasaitzen doa eta noizbehinka norbait agertzen da.”

Gainera, txertoak soberan egonez gero, kanpainaren epea luzatzen dutela ere aipatu du.

Etxean jarri

Ezarritako orduetan osasun zentrori hurbildu ezin duten pertsonak ere txertoa jartzeko aukera dutela jakitera

eman digu Osasun zentroko erizainak.

Haien mediku edo kanpainako arduradunekin hitz egin eta beste ordu bat zehaztu dezaketela aipatu digu.

Eta prozedura bera jarraitu behar dute etxean txertoa jarri nahi dutenak. Izan ere, “osasun arazoengatik zentrori hurbildu ezin direnentzat zerbitzu hau ere eskuragarri dago”

Polemikoa

Txertoa jartzea gai polemikoa da. Baina Gomezek txertoa segurua dela, ongi probatua dagoela eta eraginkorra dela azpimarratzen du. “Batzuk inoiz ez dute gripea bat hartu eta txertatu eta gero gripea dute, baina hau ez da txertoaren ondorioz izaten”.

Gauzak honela herritarrak gonbidatzen ditu gripearen aurkako txertoa jartzera.



Asier Altuna zuzendaria Laura Nogueras Okendo Zinema taldeko kidearekin solasean.

'Amama', jolas zinematografikoaz gozatzen

Asteburu honetan, ostirala eta igandean, Donostiako Zinemaldian Sail ofizialean lehiatu eta Irizar saria eskuratu zuen ‘Amama’ euskal filmaz gozatu ahal izan dute, euskaraz gaztelarako azpitituluekin, Manuel Lekuona kultur etxera hurbildu diren herritarrek.

Ostiralean, gainera, Okendo Zinema Taldearen eskutik, zine forum berezia izan zen, bisita izan baitzuten taldeko lagunek. Asier Altuna zuzendariaren laguntza izan zuten filma aztertzeko.

Oso fikziozkoa

Lehenik, aretoa hain betea ikustea eskertu zuten taldeko lagunek. Filmari buruz hiru hitz esan eta Altuna aurkeztu zuten.

Honi bere lehengo film luzeari buruz galdetu zioten. “Pelikula intimoa eta oso fikziozkoa” bezala definitu zuen Altunak filma, baita “jolas zinematografikoa” ere.

Oso gertutik ezagutzen duen gila jorrazten duela azpimarratu eta “omenaldi karinosa da txikitan ezagutu nuen

baserri bati. Izateko era bati, esku handi batzuei, funtzionatzeko beste era bati eta azkenean, aldatzen ari den bizimodu bati” adierazi zuen zuzendari begararrak.

Aurkezpenaren ostean, ‘Amama’ filmaz gozatu zuten ikusleek.

Emanaldia amaitzean, Okendo Zinema taldeko lagunek Altunarekin solasalditxo bat egin zuten. Manuel Lekuonako aretoan izan ziren herritarrek haien galderak egiteko aukera izan zuten.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidar Azurmendi, Nerea Eizaguirre, Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Aruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

UDALBATZARRA



Ostiral goizeko ez ohiko saioan onartu zituen udalbatzarrak 2016ko ordenantza fiskalak.

2016ko ordenantza fiskalak onartu ditu Udalbatzarrak

Hainbat tasa igoko ditu Udalak datorren urtean

KPI indizea %1,3 igoko dela aurreikusten du Udalak, eta diru-sarrerak ere portzentaje horretan handitze aldera hainbat tasa igoko ditu, 2016ko ordenantza fiskalen proiektuan jaso bezala. Ostiral goizean aztertu eta onartu zuten txosten hori, aldeko 9 bozka eta 6 abstentziorekin.

TXINTXARRI

Datorren urteko ordenantza fiskalen txostenean jaso gisara, hainbat tasa garestiagoak izango dira 2016an. Udalak aurreikusten du %1,3 igoko dela KPIa, eta diru-sarrerak ere ehuneko horretan handituko ditu. Joan den ostiralean aztertu zuten txostena ezohiko udalbatzarrean, eta 9 aldeko bozka eta 6 abstentziorekin onartu zuten.

KPIaren estimazioan oinarrituz igoko dituzte IBI zerga, musika eskolako tasa, udal euskaltegia, hilerrikoa, IAE Aktibitate Ekonomikoen zerga, estolderia, zaborra, Ibilgailuen Gaineko Zerga eta SAD Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua (egunean zeharrekoa soilik, jaigunetakoa ia %12 jaitsiko da).

Aipatutako tasa batzuk zifretara ekarrituz, horrela geratuko dira, esaterako, 2016ko zaborren tasak: Etxeko zaborraren 84,40 euro ordaindu beharko dituzte herritarrek, 208 komertzio eta dendek eta 296 ostalaritza alorrekoek. "Kritikak jasotzen ditugu alor honetan, baina berriro ere gure antzeko ezaugarriak dituzten hainbat udalerriren tasekin alderatuz, askoz gutxiago ordaintzen dugu. Esaterako, Bergarako dendena 575 eurokoa da, eta ostalarientzako 864".

"Hainbat tasa igotzea erabaki dugu, baina gutxiago ordaindu beharko dute lasarteoriatarrek alor gehienetan, gure herriaren antzeko ezaugarriak dituzten beste hainbatek dituztenekin alderatzen baditugu", zehaztu zuen Jesus Zaballos alkatea.

Uraren tasa ere igo egingo da, zentimo bat lauhileko bakoitzeko. Dena dela, izoztu egingo dira zenbait esparru Udalak: Taxien tasa, udaleko Kultura batzordeak antolatutako ikuskizunak eta Eraikinen Gaineko Zerga. Bestalde, Kiroldegiko kuotek jaitsiera xume bat izango dute.

Honetaz gain, urte osokoak ez diren kurtsoetan aldatu egingo dira prezioak ezartzeko irizpideak. Ikastaroaren prezioaren eta matrikulatutako jende kopuruaren artean zatiketa egingo da, eta emaitza izango da herritarrek ordaindu beharko dutena, alkateak ostiralean azaldu zuenez.

Proiektua, onartua

Ordenantza fiskalen egitasmoa eztabaidatu baino lehen, 2015 urteko ekitaldian kredituak aldatzeko bideratu diren dosierren berri eman zuen Jesus Zaballos alkatea.

Jarraian, ordenantzen txanda izan zen. Udalbatzarrerak ekarri baino lehen Ogasun Batzordean ordenantzen proiektua aurkeztu eta eztabaidatu zen. Guztira zortzi emen-

dakin jarri zitzaizkion; 4 EH Bilduk, 3 PSE-EEk eta bat EAJk. Azkeneko lauak onartuak izan ziren; EH Bildurenak, aldiz, baztertuak.

Ostiraleko saiora eraman zituen emendekin horiek koalizio abertzaleak, boto partikular bidez. Hutsik dauden bigarren etxebizitzetako gain-tasa bat ezartzeko protokolo baten eskaera, ikastaroak berandu hasiz gero partzialki ordaintzea, herriko irabazi asmorik gabeko elkar-teei udal lokalak uztea eta hobariak ikastaro guztiei ezartzea eskatu zuten, baina udalbatzarrak ez zituen babestu proposamenak.

Ondoren ordenantzen proposamena bozkatu eta aurrera atera zen egitasmoa 9 aldeko bozka eta 6 abstentziorekin.

Alderdien balorazioak

PPk ireki zuen txanda: "KPIaren 1,3aren igoera zentuzkoa iruditzen zaigu, baina arrazoi subjektibo bat dela-eta ez dugu alde bozkatu; fiskalitatea ulertzeko dugun moduagatik", zehaztu zuen Alex Saenzek.

EAJko bozeramaile Estitxu Alkorta adierazi zuen "pozik" dagoela alderdi jeltzalea neurriekin, tasak ez direlako igoko KPIa baino gehiago 2016an, eta "ekonomia sustatzeko hainbat neurri" hartu direlako.

EH Bilduko Pablo Barriok azaldu zuen koalizio abertzaleak "duela 4 urte abiatutako aldaketa nabarmenenak" isaltuta ikusten direla ordenantzetan baina emendakinetan aipatutako "atzerapausoak" ere gogoratu zituen.

Alderdien iritzia entzun eta gero alkateak amaitutzat eman zuen udalbatzarra.

UDALA

Bost lanpostu berri eskaini ditu Lasarte-Oriako udalak

Merkataritza edota marketineko bi kudeatzaile, Guztion Lasarte-Oria proiekturako kudeatzailea, igeltsero bat eta margolari bat kontratatuko ditu Lasarte-Oriako Udalak.

Izena emateko epea azaroaren 12an bukatuko da, eguerdiko hamabietan. Kontratazioa Lanbideren bitartez egingo da, eta izena eman nahi duenak www.lanbide.euskadi.eus webgunean edota Lanbideren bulegoetan egin ahal izango du.

Guztion Lasarte-Oria proiekturako margolaria Udalak berak aukeratuko du, Dioni Avila enplegu dinamizatzaileak hain justu. Informazio gehiago nahi izanez gero, d.avila@lasarte-oria.eus helbide elektronikora idatzi daiteke edota 943 376 183 telefonora hots egin.

MUSIKA INSTRUMENTUAK

Musika eskolak tresna berriak eskuratu ditu

Lasarte-Oriako musika eskolak berriro egingo du tresneria. Udalak jakinarazi duenez honako instrumentuak eskuratu ditu: hiru afinagailu kromatiko, aulkidun piano digitala, zeharkako txirula, flauta altua, panderoa eta anplifikadoredun gitarra klasikoa. Guztira 3.992 euroko inbertsioa egin du.

UDALBATZARRA

Hondakinen kudeaketa aztergai astearteko ohiko udalbatzarrean

Azaroko bigarren asteartea izango da biharkoa, eta ohikoa den moduan pleno aretoan bilduko dira herriko 17 zinegotziak; ohiko udalbatzarra egingo dute 18:30ean hasita. Hainbat gai izango dituzte hizpide: azaroaren 25ean ospatuko den Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna, Lasarte-Oria FEMP Espainiako Udalerrri eta Probintzien Federazioan txertatzea, eta baita hondakinen kudeaketa ere. EAJk eta PPK mozio bateratu bat aurkeztuko dute; 'Gipuzkoan sorten diren hondakinen kudeaketa' izango dute hizpide.

Sortu berri den Aire Garbia plataformak prestatutako mozio bat ere aztertuko dute, Bozeramaileen Batzarrak aurrez onartu ostean; Zubietako errauste plantari buruzkoa izango da. Gai horri lotuta, PSE-EEk mozio alternatibo bat aurkeztuko du udalbatzarrean. Azkenik, ohi bezala galdera eta erreguen txanda izango da eta bertaratzen diren herritarrek haien proposamen, kexa eta iritzia plazaratu ahalko dituzte.

PODEMOS-AHAL DUGU

Podemos-Ahal dugu alderdia hauteskundeak prestatzen

Ostegun arratsaldean, Lasarte-Oriak Ahal du hautesle taldeak Podemos Gipuzkoa-Ahal dugu taldeak Kongresurako aurkeztu den Gipuzkoako zerrenda burua den Nagua Albaren bisita izan zuen. Abenduaren 20an Estatu Espainiarreko Kongresu eta Senatua osatzeko hauteskundeak izango dira eta alderdiak lanean ari dira kanpaina prestatzeko.

Lasarte-Oria Ahal du taldeko kideek Kongresurako Gipuzkoako zerrenda burua den Nagua Albaren haien proposamenak eta zalantzak azaltzeko aukera izan zuten Manuel Lekuona kultur etxean egin zen bileran.

Era berean, azken egun hauetan alderdian hauteskunderetako zerrendak zirela eta, izan diren nondik norakoei buruz ere galdetu zioten. Naguak guztia konpondu dela eta zerrendak zeuden bezala jarraituko dutela adierazi zuen.

BIYAK BAT

Txangoa Lodosara azaroaren 26an

Biyak Bat elkarteak jakitera eman duenez, Lodosara egingo dute txangoa hilaren 26an. Gaur ireki da izena emateko epea. Goizeko zortzietan aterako dira eta piperren kontserbagintza lantegi bat bisitatuko dute lehenik. XVI. mendeko eliza, piki-lloko piperrari eginiako monumentua eta 'Romero' diskoteka ikusiko dituzte ondoren. Azagrako bidean kokaturiko 'Valderales' upeltegian ardoa dastatuko dute, eta ordubetan bazkalduko dute. Egunari amaiera emateko dantzak eta bingoa izango dituzte.

Izen emateak 35 euroko kostua izango du bazkideentzat, eta 45 eurokoa bazkide ez direnentzat.

Bertso eta lore ugari

Arrieskalleta elkartean bildu ziren zaletuek bertso saioaz ederki gozatu zuten

Aurten bertsoa izan zen protagonista nagusia Arrieskalletako bertso afarian. Ane Labaka eta Patxi Etxeberriaren bertsoei esker, hitzek eta doinuek Arrieskalleta bete zuten. Mailu Arrutiren esketxek umore puntu bat jarri zuten. Eta apustu berezia ere izan zen, kalabaza baten pisua asmatu behar izan zen. Bertso zaleak gustura egon ziren emanaldi berezi honetan.

TXINTXARRI

Arrieskalleta elkartean, ezohiko bertso afari izan zen ostiralean. Elkartek eta Earra! Bertso eskolak antolatuta, janaria, bertsoa, hitza eta apustua izan ziren.

Afal ostean, Mailu Arrutik eman zion hasiera ekitaldiari. Bere irakasle garaiak gogora ekarri eta 'Desberdinen batasuna helburuaren amankomuna lortzeko' tesia garatu zuen Arrieskalletan zeuden bertso zaleen aurrean. Hau da, Katalunian ideologia desberdinetako pertsonak independentziaren alde 'Junts per si' alderdian batu diren bezala, Ane eta Patxi Arrieskalletan 'Junts per bertso' batu zirela eta bertsoa, bertsolaritza, bertso eskola eta bertso zaletasuna helburu zutela adierazi zuen.

Aurkezpen ez ohiko horren ostean, zortziko handian, zortziko txikian eta pun-

tuka gairik gabe ibili ziren bertsotan Ane eta Patxi.

Era honetara, bata besteari loreak bota zizkieten. Anek Patxiren adinean bertsotan egitea gustatuk litzaiokeela abestu zuen. Patxi Aneren bertso eskolako lehen urteak ekarri zituen gogora eta honen bilakaera. Feminismoa ere jorratu zuten eta Patxi Ane neska zahar geratuko zela azpimarratu zuen honen harira.

Bertsolariei atsedena emate aldera, Mailuk hondartzan egotean ikusitako hainbat gertaera ekarri zituen Arrieskalletara

Ostean, Ane eta Patxi gaia jarrita aritu ziren eta Unai Muñoak izan zen gai jartzaile lanetan.

Era honetara, Anek EAJko aitona Podemosen alde bozkatzeko konbentzitu behar izan zuen, Ane Patxiren hamaikagarren zaintzailea izan zen edo Patxi bizitza-



Mailu Arrutik bertso afariaren helburua zein zen azaldu zuen saio hasieran.

ren mandamenduak erakutsi behar izan zizkion Aneri.

Kalabaza

Baina bertso eta txutxu-mutxuez gain, apustu berezi bat ere izan zen Arrieskalleta elkarteko saioan. Kalabaza baten pisua pasa gabe asmatu behar izan zuten ikusleek.

Kalabazak 8 kilo eta 234 gramo zituen eta gertuen egon zena, Lizaso izena zuen txartela izan zen, 8 kilo esanda. Zortekoak kalabaza eta 28 euro eraman zituen etxera.



Lizaso ez zen esku hutsik joan bertso afaritik, kalabaza eta 28 euro eraman zituen etxera.

XII. Akordeoi Jaialdia larunbatean, Zero Setteren eskutik

Urtero legez, aurten ere musika jaialdia antolatu du Zero Settek Manuel Lekuona kultur etxean. Eric Bouvelle akordeoilari bertute-tsua, Mirari Etxeberria biolinista donostiarrak eta Donostiako Udal Musika Eskolako dantza taldea arituko dira Zero-Sette orkestrarekin batera.

Akordeoi soinuak izango dira entzungai hilaren 14ean, larunbatean 19:00tan, herriko Manuel Lekuona kultur etxean. Zero Sette orkestrak antolatutako XII. Akordeoi Jaialdiak luxuzko gonbidatuak izango ditu beste behin ere.

Aurtengo izarra Eric Bouvelle akordeoilari frantziarra izango da. Munduko Akordeoi Kopako txapeldun izandakoaz gozatzeko aukera izango da Lasarte-Orian. Bere orkestrarekin batera, musette estiloko doinuek joko ditu. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, "musika alaia eta bizia" da Bouvellerena, "80ko hamarkadako Paris



XI. edizioan Manuel Lekuonan aritu ziren Joao Frade akordeoilari portugaldarra eta Munir Hossn gitarrista brasildarra

erromantikoa gogora ekartzen duena". Bere ibilbidean 50 lan baino gehiago argitaratu ditu musikari borgoinarrak.

Mirari Etxeberria biolinista donostiar gaztearen musikaz ere gozatzeko aukera izango da jaialdian. Camille Saint-Saëns konpositore frantziarraren 'Dantza Makabroa' interpretatuko du Donostiako

Musika Eskolako dantza taldearen eta Zero Sette orkestraren laguntzaz. Hamazazpi urte izan arren, taula gainean esperientzia handia du Etxeberriak. Zortzi urterekin hasi zen biolina jotzen eta Euskal Herriko Gazte Orkestrako kide izan da, besteak beste. Gaur egun, Enekoitz Martinez irakaslearekin ikasten ari da.

Kultur hiribururako pieza

Jaialdiari amaiera modu berezian emango diote. Arratsalde osoan zehar parte hartu duten musikari guztiek pieza berria aurkeztuko dute. Donostiako 2016ko Kultur Hiribururako bereziki konposatutakoa, alegia.

Jose Manuel Crespok zuzentzen duen Zero Sette

orkestrak bere Errepertorioa pieza klasikoetan oinarritzen du. Hala ere, musika garaikideak ere bere lekutxo izaten du bere kontzertuetan. Izan ere, aurreko urtetan, esaterako, Rodger Hodgson, Metallica edota Jeff Lynne bezalako artisten bertsoiak egin izan dituzte, baita The Godfather eta West Side Story filmeen soinu bandak egokitu ere.

Jaialdia sendotuz

2015ean ere maila handiko musikariak izango ditugu gurean. Aurreko edizioan Joao Frade akordeoilari portugaldarrak eta Munir Hossn gitarrista brasildarrak eskaini zuten emanaldia Joxan Goikoetxea hernaniarrarekin batera. X. edizioan, berriz, Arrigo Tomasi italiarra eta Daniel Levy uruguaidarra izan ziren gurean.

Jaialdia arratsaldeko zazpitan hasiko da, eta hiru euroko sarrerak kultur etxean eskuratu ahal izango dira. Hamasei urtetik beherakoak doan sartuko dira

Antzerkiaren erraiak erakusten

Herritar ugari hurbildu da Lan eta Lan antzerki taldeko urteurreneko ekintzetara

Antzerki bat prestatzeko hainbat pauso jarraitu behar dituzte aktoreek, Lan eta Lan antzerki taldeak horietako bat erakutsi zuen, irakurketa dramatizatua. Ekintza honekin antzerki taldeak 18. urteurrenetako prestatutako lanen erakustaldiak amaitu dira. Baina Antonio Mercero guneko erakusketa larunbatera arte ikusi ahalko da.

Lan eta Lan taldeko lagunek 18. urteurrenaren ospakizunekin aurrera jarraitu dute.

Ostegunean, aurreko zenbakian berri eman genuen bezala, Cervantes idazle ezagunaren 'El viejo celoso' lana antzeztu zuten.

Ongien egiten dakitena erakutsi zuten Lan eta Lan antzerki taldekoak, kultur etxean: oholtza gainera igo eta interpretatzea.

Hurbildu ziren herritarrek ederki barre egin zuten entremes honek dakarren istorioari esker. Izan ere, emakume ez leial baten eta bere senarraren harremanei buruzko lana ekarri baitzuten oholtzara.

Irakurketa

Larunbatean, berriz, antzerkiaren beste arlo bat erakutsi zuten 'El cianuro ¿solo o con leche?' lanaren irakurketa dramatizatua eginez.

Taldeko kideak pertsonaieiz karakterizatuak igo ziren oholtzara. Baina ohiko antzezlanetan ez bezala, antzezle guztiak momentu

oro izan ziren ikusgai. Haien papera irakurri eta antzeztu behar ez zutenean, aulki batzuetan eserita besteen pasarteak adi jarraitzen zituzten.

Antzezlaneko hainbat momentutan, taldeko zuzendaria ere ikusi ahal izan zen, antzezleei gomendioak eman edo soinu efektuak sartzen.

Aukeratutako komedia beltzak Manuel Lekuonako aretoa bete zuten ikusleen barre eta algarak eragin zituen, momentu askotan.

Erakusketa

Baina bi ekintza hauek ez diote amaiera eman urteurren berezi honen ospakizunei.

Larunbatera arte, Lan eta Lan taldeak 18 urte hauetan batu dituen atrezzo, argazki, kartel eta beste objektuen erakusketa ikusteko aukera dute herritarrek Antonio Mercero aretoan. Lehengo astean ireki zen eta hainbat izan dira bertatik igaro diren herritarrek.

Honek ateak ixtean urteurrenaren oihala jaitsiko dute antzerki taldeko lagunek.



'El viejo celoso' antzerkiarekin ederki egin zuten barre ostegunean Manuel Lekuonara hurbildu zirenek.



Larunbatean irakurketa dramatizatua egin zuten. Irudietan, bi pasarte.

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

EROSKI online zurekin

Zuregatik behar den lekuraino joango gara. Hori dela eta, EROSKI online Supermerkatuan Euskadiko eta Nafarroako lurraldearen %100ean ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

lurraldearen
%100-era
iristen gara

PILOTA.-

Intzako seniorrek I. mailako igoera jokatu dute

Lehen faseko azken jardunaldian Eskoriatza garaitu eta txartela eskuratu zuen senior bikoteak

Intza KEko seniorrek Ezker hormako txapelketan I. mailako igoera faserako sailkapena jokoan izan zuten larunbatean. Eskoriatzaren aurka jokatu zuten partida eta bi taldeek aukerak zituzten hurrengo fasean egoteko. Arerioaren azken orduko jokalarik aldaketak norgehiagoka lasarteoriataren alde jarriko zuela zirudien, baina Intzako bikoteak ederki lan egin behar izan zuen garaipena lortu eta igoera fasean egoteko.

TXINTXARRI

Partida erabakigarria ikusi ahal izan zen larunbatean Michelingo kirol guneko pilotalekuan. Izan ere, Ezker hormako txapelketako lehen faseko azken jardunaldian jokoan baitzegoen I. mailako igoera faserako txartela.

Aurrez aurre multzoko bigarren taldea, Eskoriatza eta laugarrena, Intza egon ziren. Sailkapenean, partida jokatu baino lehen, puntu bakarrek tartea zegoen eta partidako emaitza berebizikoa zen multzoko lehen bi postuak nork eskuratuko zituen jakiteko. Intzak 22-18 edo alde gehiagoko garaipena behar zuen bigarren izateko; Eskoriatzak beriz, partida irabaztearekin nahikoa zuen sailkapeneko lehen postuan egoteko.

Lesioa

Eskoriatza azken orduko baja batekin etorri zen Lasarte-Oriara, atzelaria lesionatu baitzen. Bere ordez, beste aurrelari bat egongo zen jokoan.

Honek Intzako bikotearen alde jartzen zuen balantza, baina partida hasi eta Haritz Urkia eta Mikel Elolak tantoak ongi landu beharko zituztela ikusi zuten. Arerioa 0-3 aurreratu zitzaizen.

Hala ere, ez zuten amore eman. Ederki eutsi zieten arerioaren erasoei. Gainera, luze jokatzen hasi ziren eta bi atzelariak lan ederra egin behar izan zuten. Arerioaren akatsak eta jokaldi azkarrei esker, Intzak partida berdindu eta tantoz tanto tartea irerkitzen joan ziren.



Intzako senior bikoteak ederki egin zuen lan garaipena eta igoera faserako txartela lortzeko.

16-7ko markagailuarekin, Eskoriatzako bikoteak ez du amore eman eta ederki borrokatu du. Tanto luzeak, landutako jokaldiak eta dejada politak ikusi dira azken tantotetan.

Sailkapenak ihes egingo zuela zirudien azken minutuetan. Nahiz eta Intzak 20 tanto izan, arerioak 18 tanto egiteko 4 falta zituen. Gainera hainbat akats egin ostean, Haritz Urkiaren urduritasuna nabaria zen.

Baina Mikel Elola atzelariak esperientziak balio duela argi utzi zuen eta atzelariari lan eginaz, arerioa hanka sartzerara behartu zuen eta azkenean Intzak 22-14 garaitu zuen Eskoriatza.

Sailkapen fasea

Era honetara, igoera faseko finalerdian egongo da Intzako senior bikotea eta beste multzoko lehen sailkatua den Atzapar taldearen aurka jokatu beharko du.

Irabaziz gero, Ezker hormako I. mailan jokatu du Intzak hurrengo denboraldian.

Galduz gero, bi egoera eman daitezke. Batetik Intzak beste finalerdiko galtzaileak baino tanto gehiago egin baditu sailkapen faseko 3. postua eskuratu eta I. mailako txartela eskuratuko luke.

Eta bestetik laugarren izaenez gero, jubenilen mailako txapelketa irabazi beharko luke igoera lortzeko.

IGERIKETA.-

Buruntzaldea IKT ederki etxean

Hilabeteetako entrenamenduen ostean, larunbatean Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak lehiaketa garaia hasi zuten Lasarte-Orian burutu zen Neguko Ligako I. jardunaldian.

Herriko taldeko neska eta mutilak Tolosaldea, Hernani, Ordizia eta Igartza taldeko kideak izan zituzten arerio.

Probak

1.500 m. libre, 50 m. bular, 100 m. tximeleta, 200 m. bizkar, 200 m. estilo, 100 m. libre, 50 m. bizkar eta 200 m. tximeleta izan ziren bakarka lehiatu ziren probak.

Nahiz eta igerilekua sobetan ezagutu, Buruntzaldea IKTko neska eta mutilen urduritasuna nabaria zen, batez ere, infantil mailako igerilarietan. Hala ere, ederki egin zuten guztiek igeri etxekoan animo eta txaloei esker.



Etxean hasi zuten Buruntzaldea IKTko kideek Neguko Liga.

Absolutu eta junior mailan, Itsaso Tolosa, Unai Irigoras, Iñigo Ibarburu eta Mikel Esnal izan ziren igerian; infantiletan, aldiz, Daniel Herranz, Xabier Alonso, Beñat Alkorta, Jon Ibarгойen, Jon del Rio, Leire Carcedo, Nora Irazusta, Ane Otaegi, Maria Garasa, Ibane Otaegui, Irati Arzallus, Janire

Berasarte eta Nahia Jie Villamediana

Eta taldeka ere lehiatu ziren, infantil mailan eta absolutu mailan 4x200 m. libre eta 4x100 m. libreko probak jokatu baitzen.

Ez da hau etxean jokatu duten Ligako jardunaldi bakarra izango, urtarilaren 16an azken jardunaldia ere izango da gurean.

TENISA.-

Asteburu honetan hasi da LOKEren eskolarteko tenis txapelketa

Michelingo kirol guneko pistetan jokalarik gaztetxoak jositako egon dira amaitu berri den asteburuan. Alebin zein infantil mailako neska-mutilek eskolarteko tenis txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu dute. Larunbat arratsaldeko 14:00etan hasi ziren lehenengo bi partiduak, eta arratsaldeko 18:30etik aurrera azkenak. Pistetan giro aparta sortu zen, jokalarien guraso eta lagun ugari gerturatu baitziren norgehiagokak ikustera.

Lasarte-Oria, Usurbil, Andoain, Hernani, Urnieta eta Donostiako gaztetxoak ari dira txapelketan parte hartzen. Lehenengo fasea liga formatuan ari dira jokatzen; 4 jokalariko taldeak egin dira. Parte-hartzaile kopuruari so eginda, bizpahiru erronda jokatzea aurreikusten dute antolatzaileek. Otsailaren 27an amaituko da txapelketaren lehenengo fase hori.



Michelingo kirol guneko pistetan jokatu dira txapelketako partidak.



200 bat lasarteoriatar eta inguruko herriko korrikalariak trenez joan ziren Ficobara eta gero autobusez Behobiako irteera. Argazkian, 8:30tako trena hartu zuen herritar talde bat.

Beroa eta haizea arerio latzak Behobia-Donostian

Raul Gomez eta Maialen Garcia, herritar azkarrenak

Atzo korrikarientzat hitzordu garrantzitsua izan zen, Behobia-Donostia lasterketa. Hilabeteak entrenatu ostean, Behobiako irteera eta Donostiako Boulevardeko helmuga arteko 20,2 kilometroak egiteko txanda iritsi zen. Guztia prest izan arren, arerio arriskutsuak izan zituzten atzokoan korrikalariak, beroa eta haizea.

Boulevardeko helmugara iristea. Hori zen atzo 28.262 korrikalariak zuten helburua, baina atzokoa ez zen lasterketa erraza izan. Korrikalariak haizea eta batez ere, beroari aurre egin behar izan zieten.

Goizeko 10:00etan hasi zen Behobiako lasterketa nagusia. Baina lehenagotik ikusi zitezkeen korrikalari, elbarri edo patinatzaileak bertan, baita FICOBako tren geltokian ere.

Asko dira Behobiara iristeko garraiobide hau aukeratzeko dutenak eta horregatik, Lasarte-Oriako Euskotren geltokian ez ohiko bidaiari

mugimendua izan zen goizeko lehen orduetan.

Baina korrikalari edo patinatzaileez gain, eguraldia lagun, herritar ugari hurbildu zen Donostiara edo ibilbideko puntu ezberdinetara haien senide edo lagunak animatzera.

Lasterketa

Elbarrituen lasterketak 9:30ean hasiera eman zion jaiari. Ondoren, patinatzaileen txanda izan zen. Azkenik, 10:00etan, atleta guztiek espero zuten unea iritsi zen eta 17 taldeetan pixkanaka Behobia atzean utzi zuten ibilbidean barrean joateko.

Donostiako helmugan Carles Castillo, 01:01:13 eta Raquel Gomez, 01:13:39, izan ziren azkarrenak.

Herritarrak

206 herritar izan ziren lasterketa amaitu zutenak. Horien artean azkarrena, Raul Gomez Margallo izan zen, 01:10:22. Emakumeen artean, Maialen Garcia 01:29:45 denbora egin zuen.

Lasterkariak gain, herriko bi patinatzaileak ere amaitu zuten lasterketa Jose Guerra eta Naroa Salsamendik.

Behobia gaztea

Eta gaztetxoek ere lasterketako zati bat egiteko aukera izan zuten, Herreratik Boulevardera eta bertan izan ziren herriko atleta gazteak ere.

Idoia Olasagasti junior mailako seigarren izan zen eta jubenetan Asier Olmos bederatzigarren eta Diego Gonzalez hamargarren.



Raul Gomez Margallo izan zen helmugara iritsi zen lehen lasarteoriatarra.



Bakarka, lagunekin edo familian 206 herritarrek amaitu zuten lasterketa.

NOAUA!ren KULTURALDIA 2015

Usurbilen azaroaren 6tik 15era

azaroak 9tik 15era
ERAKUSKETA
"LAURI" Joseba Larretxe. Liburutegian

azaroak 13, OSTIRALA
BERTSO-AFARIA
21:00tan Artzabalen

azaroak 12, OSTEAGUNA
HITZALDIA
"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean

azaroak 14, LARUNBATA
ANTZERKIA
"Arrastoak" 20:00etan Sutegin

azaroak 15, IGANDEA
IBILALDIA
10:00tan Arratzainen